



Mujeres de un poblado de las montañas en la región de Arbaminch



Iglesia de piedra de la ciudad de Gondar

Etiopia

ametsak eta amesgaiztoak
herri berean

Helena Bengoetxea

Bidaia agentzietan ez digute deus esango Etiopiar buruz. Alabaina, Europan Afrikaz dugun irudi topikoz josia hankaz gora uzten du herri horrek. Kontinente beltza deitu izan denaren barruan, hiru erlijioen topagune da Etiopia. Kolonizatua izan ez den herri afrikar bakarra dugu, eta munduaren beste puntan den Jamaikarentzat erreferentzia da aspalditik. Azkenaldian, baina, tribuen arteko gerrengatik da hizpide.

Beltzen esku zeuden zenbait herrialde izendatze aldera asmatu zuten greziarrek Aethiopia (“irudi erreak”) hitza. Sasoi hartan, gaur egun Etiopia moduan ezagutzen dugun zonaldea lurralde indartsua zen. Elezaharrek diote Sabako erreginak Israelgo Salomon erregearekin seme bat izan zuela, Menelik, eta honek Jerusalemdik Aksumera, garai hartako Etiopiako hiriburura eramane zuen Itunaren Kutxa.

Mitoak alde batera utzita, herri afrikarren artean kasu bitxia da Etiopiarena: Afrika herrialdetan banatzeko prozesua abian jarri zenean, Etiopiak bere mugei eutsi zien. Haren subiranotasuna behin

bakarrik egon da kolokan: 1936an gertatu zen hori, Mussolini herrialdean indarrez sartu zenean. Bost urte geroago, etnia guztiek bat eginda lortu zuten diktadore italiarra kanporatzea. Paradoxikoki, herrialdeak biltzen dituen etnien arteko konpon ezintasunak gatazka iturri dira une honetan.

Gaur egungo Etiopia estatus berezia duten bi hiririk eta bederatzirentzat herri federatutik osatzen dute. Hiriburuak, Addis Ababek 80 nazionalitate eta hizkuntzatik gora biltzen ditu; nazionalitate horietatik zenbaitek kristautasunarekin, musulmanekin zein juduekin loturak dituzte, besteak beste. Addis



Grupo de etiopes se dirigen a una boda en las montañas.



Cascada Blue Nile

Abeba herrialdearen erdigunean kokaturik dago, Entoto mendi inguruan. Horrek Afrikako hiririk garaiena eta munduko hirugarrena bihurtzen du.

Berezia da oso Afrikako garaiena den honen aire zabaleko merkatua. Aipatzekoak dira ere Museo Etnografikoa, zeinetan “Lucy” izendaturiko australopithecus afarensis eme baten eskeletoa dagoen, eta zonalde behartsuenetan sortu diren emakume sareak, diru truke lapurrei aldi baterako aterpea eskaintzeko antolatuak.

Etiopiako ibai nagusiek, Atbara eta Abbai (Nilo Urdina), iparraldera jotzen dute. Zonalde

horretan lekurik interesgarriena Tana aintzira da, Nilo Urdinaren sorburu. Bertan Tisissat (“erretzen duten urak”) ur-jauziak, eta haien inguruan XV. monastegi ortodoxo zenbait aurkituko ditugu, non zaldi -eta ahuntz- larruz egindako eskuizkribuak eta fresko erlijiosu anitz dauden.

Kristautasuna erlijio ofizialtzat hartu zuen munduko bigarren herrialdea dugu Etiopia, lehenengoa Armenia izanik. Gaur egun, ordea, populazioaren %60a baino gehiago ortodoxoa da. Urtarrila iristearekin batera, Epifania ospatze aldera, milaka kristau ortodoxo Laiberala abiatzen dira, iparraldera,

non lurtean indusitako hamabi monastegi dauden. Askorentzat, monastegi horiek munduko zortzigarren miraria (ez ofiziala baina) dira.

Islamaren beraren presentzia Ethiopian nahiko goiztiarra da. 615. urtean zabaldu zen hura, hegoaldean eta ekialdean batik bat. XII. mendean eraiki zuten Hara, biztanle musulman gehien duen hiria. Bien bitartean, geroz eta judutar gutxiago da Ethiopian. Gondar hiri historikoaren ondoan den Wolekan bizi ziren “falash” (Etiopiako juduak) gehienek Israelera jo zuten aspaldi, agindutako lurraldearen seme-alaba bihurtzeko. F

GAYAZKA ARMATUAK

Italiarrak Etiopiatik kanporatu zituztenean, Haile Selasie pasa zen gobernuburu izatera. Hogeita hamabost urtez egon zen kargu horretan. 1952an Nazio Batuen Erakundeak lurralde autonomo izendatu zuen Eritrea, baina horren ondorioz sortu ziren matxinadek bertan behera utzi zuten erabakia. 1977an Sobiet Batasunaren kide egin zen herrialdea. Etiopiako armadak, Kubak lagundurik, gogor jazarri zuen lurraldea Somaliako gerran. 1990. hamarkadan Meles Zenawi iritsi zen presidentziara, Eritreako independentisten laguntzaz. Baina XX. mendea agurtzeko hiru urte falta zirenean, gerra piztu egin zen berriz. Gaur egun, Nazio Batuen Erakundeak eta Afrikako Nazioen Batasunak egindako ahaleginari esker, bi herrialde bereizi eta burujabe dira Etiopia eta Eritrea. Bake akordioan Etiopiako bakearen aldeko emakumeek rol garrantzitsua bete zuten. F

